

## BARKATU ETA HASI BERRIRO

> Nire gurasoak banandu zirenean nik 12 urte nituen. Asko sufritu nuen, aitak gu bakarrik utzi eta berak beste familia osatzegatik, barkatzen ez niolako.



>Hasieran ez nion hitz egin nahi izan, baina etsaia barkatzeko Ebanjelioko gonbidapenak ez zidan bakean uzten eta Jesusi pauso hori ematen laguntzeko eskatu nion.

**Bizi-Hitza nirekin batera bizi duten nesken maitasunak lagundu ninduen. Aitaren egunean, barkatu niola adierazteko, berari oparitxo bat egitea pentsatu nuen.**



>Ekintza honek hunkitu egin zuen, eta kontatu zidan berarentzat seme-alabak zirela ondasun handienak.

**Orduz geroztik gure harremanak zeharo aldatu ziren: nire bihotzeko atea berriz ireki banizkio bezala izan zen.** Telefono deia batean bakarrik sentitzen zela esan zidanean, aukeraz baliatuz, nire aurkikuntza kontatu nion: Jainkoak neurrigabe maite gaituela. Agurtzean lasaia zegoen eta nirekin gehiago hitz egitera etorriko zela esan zidan.

**Ez da erraza egoera hori bizitzea, baina denok huts egin dezakegula eta berriz hasteko aukera izan behar dugula ulertu nuen.**

;-) H. – Brasile

## «SENIDEOK, EZ IBILI BATA BESTEAREN AURKA MARMARKA».

**Azalduko didazu zergatik egiten duen gonbidapen hau Santiago Apostoluak?**

Lehenengo Elkarte kristauetan gaurko Elkarteetan ere gertatu daitekeena ikusi ahal zitekeen: **zailtasuna gure fedea bizitzeko**, bai gertatzen diren egoeratik eta bai ere kristau idealarekin ados ez dauden gure senideen portaerengatik.

**Eta horrek zer sortzen zuen?**

Egoera hauek ondoeza, mesfidantza...sortzen dituzte, gero askotan esamesak bihurtzen direnak.

**Hori gertatzean, zer egin behar dut?**

Kristauaren lehenengo erantzuna ez du pazientzia galtzea edo juzgatzea izan behar, Jesusek erakusten diguna baizik.

**Eta zeintzuk dira bere irakaskizunak?**

Berak erakusten digu senideekin eraman handikoak izateko, konprenitzeko eta errukiarrak izateko eta gutako bakoitzean jarritako ongiaren hazia handitzen lagunduko duen maitasuna izateko.

**Hortaz, nola bizi dezaket hilabete honetako Bizi-Hitza?**

Guk ere elkarte askotako partaideak gara (familia, eskola, hiria, parrokia...) eta batzuetan horietan, gure iritziz, gauza asko ez doaz ondo: ikuspegi ezberdinak, min egiten duten eta gudan errefus arbuioak sortzen dituzten inkoherentziak...

Honek **ERANTZUN AKTIBOA** eskatzen dit: **FALTA DEN tokian MAITASUN GEHIAGO jarri!**

## MemoryCard




**NIRE ERANTZUN AKTIBOA:**

**GERTA DAITEKEEN BESTEEN MAITASUN EDO KONPROMISO FALTAREN AURREAN, NIK MAITASUN EDO KONPROMISO HANDIAGOZ ERANTZUNGO DUT.**

## In Action...

**MAITASUN GUTXIAGO** dagoen lekuan, **MAITASUN GEHIAGO** jarriko dut.



Nire edo besteen aldetik maitasun falta ikusten dudana bakoitzean, norbaiti hiru maitasun ekintza egiten saiatuko naiz.